

txintxarri

Ituna berresteko ordua

Euskal Inauteriak ospatuko ditu Lasarte-Oriak hilaren 28an; Txantxoak egun horretan etorriko dira herrira / 6-7

Bilera eskaera, zuzendaritzari

LOOPA plataformak bilera eskatu dio herriko osasun zentroko zuzendaritzari gutun baten bidez / 2

Film laburren eguna aurrera eraman dute bosgarren Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan / 4

Udan haur sahararrak etxean hartzeko familiak behar dituztela ohartarazi dute / 5

Martin eta Garmendia txirrundulariak, pistako Gipuzkoako txapelketako podiumean / 10

Ostadar Boleiboleko Euskal Ligako taldeak igoera fasean aurre egin eta finalerdia jokatuko du / 11

Herritarrek emaitza paregabeak lortu dituzte modelitate ezberdinetako arraun probetan / 11

Rexcatering programa martxan jarri dute, elikagaien xahutzea ekiditeko helburuarekin / 3

AZKEN EGUNAK

MERKEALDIA

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

R.P.S. 91/20

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com



Herriko osasun etxeko zuzendaritzari bilera eskatu dio LOOPA

LOOPA Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataformak elkarretaratzea egin du, Okendo plazan. Hainbat aldarrikapen egin ostean, anbulatoriora joan dira; bertako zuzendaritzari bilera bat eskatzeko gutuna entregatu dute

Txintxarri

Lasarteoriatarrek jasaten ari diren osasun arreta eskasarekin eta, oro har, Osasun Publikoaren egoerarekiko kezkatuta, elkarretaratzea aurrera eraman du LOOPA plataformak. *Gure medikuak non daude?* irakur zitekeen afixaren atzealdean batu dira herritar asko, eta guztiek bat egin dute aldarrikapen berarekin: osasuna oinarritzeko giza eskubidea dela, eta kalitatezko Osasun Publikoaren aldeko defentsarekiko konpromisoa.

Azpimarra berezia egin diote kalitatezko Lehen Arretaren defentsari; adierazi dute, famulien osasun erreferenteak diziplina arteko talde egonkorretan oinarritu behar duela. Halaber, azaldu dute ikuspegi komunitario batekin lan egin

go duten profesionalak izango dituen, horrela, gaitzak prebenitu, gaixoak zaindu, eta behar denean, horiek sendatzeko.

Gauzak horrela, Osasun Publikoaren aldeko defentsan euren erabateko prestutasuna agertu, eta osasun zentrora joan dira denak. Bertan, anbulatorioko zuzendaritzari bilera eskaera formala egin diete. Eskaera horren bitartez herritarrek pairatzen duten mediku faltaz eta arretaren eskasiaren gaineko ezinegona transmititu

OSASUN PUBLIKOAREKIN KEZKATUTA AGERTU DIRA, BESTE BEHIN, HERRITARRAK

nahi diete. Bestetik, berriz, egoeraren irakurketa ahalik eta zuzenean egin ahal izateko, Lasarte-Oriako anbulatorioko errealitateaz lehen eskuko informazioa jasotzea galdegin dute, hau da, egun dauden eta egon beharko liratekeen giza baliabide eta material baliabide balantzaren berri izan nahi dute, baita horien bilakaeraren, neurri zuzentzaileen, aurreikuspenen eta langintzen berri ere.

Gutuna jaso dietela jakinarazi dute agerraldiaren amaieran LOOPAko ordezkariak, eta euren erantzunaren zain gertzen direla esan. Halaber, eskerrak eman dizkiete bertaratu diren herritar guztei, eta eskatu, aldarrikapenean orain arte bezala, bidelagun izaten jarrai dezaten.



LOOPAko hiru ordezkari gutuna entregatzera joateko prest. TXINTXARRI



Osasun zentrora joan aurretik, elkarretaratzea egin dute Okendo plazan. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Sinadurak jaso eta jaso ari dira

Pentsiodun lasarteoiatar talde bat jo eta ke ari da lanean, Euskal Herriko mugimenduak landu duen Herri Ekimen Legegilea babesteko atxikimenduak jasotzeko. Jakinarazi dute 900 inguru bildu dituztela honezkerok. Gaur (hilak 21) Biyak Bat adinekoen egoitzara joango

dira, bertakoei egitasmoa zertan den aurkeztera. Halaber, informazio mahai batzuk jarriko dituzte bihar Okendo plazan, Ola kalean eta Elizatzen, 10:00etatik 14:00etara. Firmatu nahi dutenek 18 urte edo gehiago izan eta nortasun agiria erakutsi behar dute.



TXINTXARRI

Itsasoko izakiekin bidaiatzen

Zortzi film labur eta dokumental luze bat ikusi dituzte Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa bete duten herritarrek, XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruko bigarren emanaldian. Egitasmoaren helburua itsas hondoa ezagutzea eta hori zaintzearen garrantziaz kontzientziatzea da. Azken proiektzioa datorren astelehenean egingo dute, hilak 24.

Elikagaien xahutzea saihestekoa urrats bat

Elikagaien xahutzea murriztu eta kontsumo arduratsua sustatzeko, Rexcatering proiektua martxan jarri dute udalak, Oriarte BHIk eta Fundacion Cero Residuo-k, elkarlanean. Horren berri eman dute, berriki, prentsaurrean

Txintxarri

Arduradunek jakinarazi dute makina bat jarri dutela jangelako soberakinak bildu eta banatzeko. Horrek, hortaz, ahalbidetuko du jakiak alperrik ez galtzea, hau da, soberakinen kudeaketa eraginkorragoa eta jasangarriagoa sustatzea. Aparatu hori udaletxe zaharreko arkupean kokatuko dutela jakinarazi dute; kokaleku hori aukeratu dute herritarrek puntu eroso eta irisgarri batean produktuak eskuratu ahal izan ditzaten.

Hala, azaldu dute aipatu programak elikagaien berreskuratze eta banaketa prozesu osoa "segurtasun eta higieen kontrol zorrotzen pean" egiten dela bermatzen duela; jantokietako soberakinak, hala nola prozedura zorrotz baten bidez prozesatzen direla.

Prestaketa pauso horiek egin da, elikagaiak hozkailu eraman-garrietan gordeko dituzte, hotz katea mantenduta, arestian aipatutako makinara eraman arte.

Elikagai banagailuak 200 errazio inguru gordetzeko edukiera duela azaldu dute, eta esan, soberakinen eskuragarritasunaren arabera, egunean behin edo bi egunez behin beteko dela. Gainera, makinak telemetria software aurreratua du, eta horri esker, berreskuratutako errazio horien kopurua, elikagaien tipologia, bilketa eguna eta ordua, erabiltzaileen lehentasunak eta kontsumo ohiturak erregistratzen ditu.

Horrez gain, adierazi dute proiektuak ez duela soilik elikagaiak banatzeko zerbitzua

200 ERRAZIO INGURU GORDETZEKO EDUKIERA DU ELIKAGAIEN BANAGAILUAK



Udaletxe zaharraren atarian kokatu dute elikagaiak bilduko dituen makina. TXINTXARRI

eskaintzen, hezkuntza komunitatea ere inplikatzeko baitu prozesu osoan. Oriarte BHIko ikasleek parte hartuko dute elikagaien etiketatzean eta garraioan, eta kontzientzia eta erantzukizun soziala sustatuko dute elikagaien xahuketaren aurkako borrokan. Horrez guztiarekin batera, sukaldako eta jantokiko langileei, irakasleei eta ikasleei prestakuntza espezifikoa eman zaie, prozesuaren fase bakoitza osasun berme guztiarekin gauzatzen dela ziurtatzeko.

"Balio pedagogikoa"

Hori guztia azalduta, Valdiviak egitasmoaren garrantzia azpimarratu du: "Ekimen hori martxan jarrita, ez gara soilik xahuketaren aurka borrokatzen ari, baizik eta produktu horiek behar dituztenengana iristea errazten dugu, gizarte solidario eta jasangarriagoa sustatuta".

Fernandezek, berriz, honako adierazpenok egin ditu: "Ekimen honek herritarrak, eta bereziki gazteak, kontsumo arduratsuaren garrantziaz hezi eta kontzientziatzen ditu. Hezkuntza zentroen eta familien

inplikazioa funtsezkoa da gure gizartearen aldatzeko".

Oriarte BHIko eta Oriartekide Guraso Elkartearen ordezkarikari Lopez-Zuazok eta Illarremendik ere hartu dute hitza, eta nabarmendu, proiektuaren balio pedagogikoa. Hala, azpimarratu dute horrek ikasgiletan jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra integratzeak duen garrantzia. Ikasleak ontziak makinan sartzen has-teko irrikaz daudela ere jakinarazi du aipatu ikastetxeko zuzendariak.

Informazio gehiago nahi duena Fundacion Residuo Cero elkartearekin jar daiteke harremanetan. Horretarako, honako bide hauek jarri dituzte interesdunen esku: 635 750 581 eta 674 041 438 telefono zenbakiak, edo fundacionresiduo-cero@gmail.com helbide elektronikoa.

PROIEKTUAREN BALIO PEDAGOGIKOA NABARMENDU DU ORIARTE IKASTETXEAK



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

Ulertzen al dugu elkar?

Gizarte honetan dagoen enpatia falta oharkabeen pasa ezin dezakegun fenomeno da. Interkonexio teknologikoan murgildurik dagoen mundu batean bizi gara, eta, paradoxikoki, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna urtu egin dela dirudi. Gero eta ohikoagoa da informazioz inguratuta egon arren eta gainerako munduarekin etengabe harremanetan egon arren, deskonexio emozional eta sozial gero eta handiagoa erakusten duten pertsonak aurkitzea. Baina zergatik gertatzen da hori?

Enpatia eza ez da ezinbestean pertsonen dagokien zerbait, indibidualismoa bultzatzen duen ingurune baten emaitza baizik. Gaur egungo gizartean arrakasta pertsonala, lehiakortasuna eta independentzia balioesten dira, sarritan lankidetzeta eta elkartasuna kaltetuz. Norberaren lorpena behar kolektiboaren gainetik txalotzen duen sistema batean bizi gara, eta horrek indartu egiten du garrantzitsuena gure ongizatea denaren ideia, gure ekintzek besteengan izan dezaketen eragina kontuan hartu gabe. Norberekoieria implizitu hori besteen sufrimenduarekiko axolagabetasunean agertzen da, maila indibiduallean zein kolektiboan.

Gainera, hasieran konexio tresna gisa sortu ziren sare sozialak, azalderia nagusitzen den espazio bilakatu dira. Interakzioak azkarrak, inpersonalak eta, askotan, manipulatuak izan ohi dira gure bizitzako onena erakusteko. Ingurune honek besteen emozioak hutsalak direnaren pertzepzio faltsua sortzen du, lanpeturik baikaude gure irudiarekin edo gure jarraitzaileen baliozkoetarekin. Errazagoa da beste pertsona baten errealitateak gertutik ezagutu gabe iritzia ematea, eta gainera, gure arau edo itxaropenetatik kanpo daudenak deshumanizatzeko joera sustatzen da.

Bestalde, enpatia falta pertsona askok eguneroko bizitzan sentitzen duten gainkarga emozionalak ere azal dezake. Estresak, laneko eta familiako presioek, ansietateak edota etorkizunarekiko beldurrak besteekin emozionalki konektatzeko gaitasunean eragina izan dezakete. Gure arazoekin borrokan gaudenean, zaila izan daiteke beste baten oinetakoetan jartzeko indarra edo gogoia aurkitzea.

Hala ere, panorama hau ez da konpenezina. Enpatia gara daitekeen trebetasuna da, eta funtsezkoa da guztion ongizate sozial eta emozionalerako. Enpatia sustatzeak aldaketa eskatzen du, bai maila indibiduallean, bai kolektiboan. Besteei aktiboki entzuten ikasi behar dugu, benetako interesa izaten eta pertsona bakoitzak bere erronkak eta sufrimenduak dituela jabetzen, nahiz eta beti ez adierazi. Gainera, elkar laguntza baloratuko duen kultura sustatu behar dugu, besteen zailtasunak gure ongizaterako mehatxuak ez direla aitortuko duena, gizaki gisa hazteko aukera emango diguna.

Gaur egungo gizartean dagoen enpatia falta ezin dugu ahaztu. Gero eta polarizatuago dagoen mundu batean bizi gara, non axolagabekeriak eta berekoikeriak araua diruditen. Hala ere, errealitate hori alda daiteke bestearen lekuan jartzearen eta horren arabera jokatzearen garrantzia onartzeko gai bagara. Enpatiak, besteen bizitza hobetzeaz gain, gurea ere hobe dezake, sentitzeko eta ulertzeko gure gaitasunarekin konektatzen baizikaitu.

39. urteurrena

Hilaren 15ean 39 urte bete ziren Lasarte-Oria udalerrin independente gisa eratu zutenetik. Urtemuga hori oroitze aldera, Lasarte-Oriako Udalak herriaren bandera zintzilikatu zuen udaletxe zaharreko balkoian, egun osoz.





Telmo Irureta eta Nagore Eceiza zinegileak, euren laburmetriak proiektatu ondorengo tertulian solasean. TXINTXARRI

Lierni A. Urdanpileta

Okendo Zinema Taldeak Euskal Dokumentalen Zikloa bost urtez eskaini du. Horri esker, askotariko dokumentalak ikusteko aukera izan dute Manuel Lekuona Kultur Etxera gerturatutakoek; hainbat tematiketakoak, orotariko egileenak. Alabaina, aurten lehen aldiz, ostiraletako bat laburmetriak proiektatzeko gorde dute. Hurrenez hurren, horrelako lau ikus-entzunezko eman dituzte: *De agua y arena* (2024), Telmo Irureta; *Zona Wao* (2024), Nagore Eceiza; *Puzzleak, Bortxaketaren Jauregia* (2024), Kote Camacho eta *Europa* (2024), Ekain Irigoien. Paseek ez dute geldiu-nerik izan. Hartara, film labur bakoitzaren bukaerako kredituak ondorengoaren hasierakoekin nahastuta, publikoaren txaloeak proiektzioen arteko trantsizio lana egin dute.

Lau pieza eta lau gai. Nahiz eta haien artean oso ezberdinak izan, laburrek gizartearen zirrikitu ugari erretratatu dituzte, eta barietate hori bertaratutakoek asko estimatu dute, baita Nagore Eceiza zinegileak ere ikus-entzunezkoen sekuentziarekin asko "hunkitu" dela aditzera eman baitio auditorioko publikoari.

Eskainitako lehenengo laburmetraia *De agua y arena* izan da. Bertan, Telmo Iruretak bere amak idatzitako gutun baten bitartez, entzefalitis herpetikoak erasan zioneko istorioa kontatu du. Hainbat gidioen eta muntaien ostean, azken emaitzarekin "oso

Film laburrak, estreinakoz

Euskal Dokumentalen Zikloak laburmetriak eman ditu lehen aldiz. Kasu honetan, lau proiektatu dituzte. Gerora, horietako biren zuzendari diren Telmo Iruretak eta Nagore Eceizak publikoarekin hizketan aritzeko tarteak izan dute

pozik" agertu da artista zumaia-rra. Izan ere, Iruretak ideia 2013an izan zuenetik, esfortzu handiz jardun da. Hortaz, aukera izandakoan, lantalde artistikoari eta teknikoari eskerrak eman nahi izan dizkio; haien artean, Teresa Calo aktore protagonista, publiko artean zegoela aprobetxatuta. Orobat, Nagore Eceizak kolore zuzentaren esparruan egindako "magia" ere aintzakotzat hartu du.

Ondoren, *Zona Wao* obrak hartu du lekukoa. Honetan, Nagore Eceizak erakutsi du Amazoniako indigenak petroleoaren erauzketa dela-eta pairatzen ari diren egoera latza; haren esanetan, asmoa "su artifizialik" gabe narratzea izan da. 2023ko haustekundeekin batera, zuzendariak Ekuadorrera bidaiatu zuen. Ariketa horiekin jarraitu ala ez, herriak hura zuen boz-

ketaren itauna. Testuinguru hartan, sakrifkatutako zonetako biztanleak elkarrizketatuta ondu du dokumentala.

Hirugarrena Kote Camachoren lana: *Puzzleak, Bortxaketaren Jauregia*. Ikus-entzunezko honek animazioa, baina batez ere egunerokoan grabatutako istantak erabiltzen ditu Kote Cabezudoren kasua jorrazteko. Horretarako, Camachok bortxatutako biktima baten testigantza plazaratzen da. Kontakizuna une traumatiko baten jartzen da martxan, hau da, neskak bere biluzi batzuk sarean zintzilikatura daudela ikustean. Baimenik gabe igo ez ezik, argazkilariak irudi horiek era mingarrian atera zituen, emakumea amildegia emozionalean erortzen da. Hala ere, erasotu gehiago daudela jakitean, auzitegiatarat jotzen du.

Bukatzeko, Ekain Irigoienek *Europa* erakutsi dute. Irigoienek istorioa urpeko Parisen kokatu du. Han baleak ikus daitezke *Eiffel* Dorretik hegan edota *Lowreko* sala ikonikoak arrainez beteta. Abiapuntu horretatik jarraituta, Lubna neskatoa da protagonista. Gerratik ihes egiteko, frantziar hiriburua iritsi berri da, baina gurasoak bere ondoan izan nahi dituela erregutzen du. Haurtzaroko tolegas-betasuna errealtate gordinarekin nahastu du donostiar zinegileak kontinente zaharreko arazo larrienetakoa lantzeko: Mediterraneo itsasoan itota hiltzen diren errefuxiatu askoren tragedia.

Hurrengo zita, Nafarroako mendietan

Zikloko hirugarren emanaldian, Oskar Alegriak zuzendutako

Azken bi emanaldietako dokumentalak



'ZINZINDURRUNKARRATZ'
HILAK 21

Paolo izeneko astoa eta soinurik grabatzen ez duen Super-8 kamera. Bidelagun horiek dituelarik, Oskar Alegria zuzendaria herriko artzainek mendietara egindako bidea berreskuratzen saiatzen da.



'ITOIZ, UDAKO SESIOAK'
HILAK 28

Ezustean zinta batzuk topatuta, Itoiz taldeko Juan Carlos Perez liderrak bidaia bati ekiten dio. Hartara, 70ko hamarkadara jotzen du ordutik honako ibilbideaz hausnartzeko eta iraganeko mamuekin adiskidetzeko.

Zinzindurrunkarratz (2023) dokumentala emango dute. *Paolo* izeneko astoa eta Super-8 kamera. Bi elementu horietaz baliatuta, Alegriak garai bateko artzainek egindako transhumanziaren bidea berreskuratu du ordu eta erdi inguruko metrajeari honetan. Orain arteko funtzionamenduari jarraiki, toki eta ordu berean proiektatuko dute, hots, kultur etxeko auditorioan, 20:00etan. Sarrerak 6 euro balio ditu. Azkenik, hilaren 28an itxiko dute aurtengo zikloa, toki eta ordu berean *Itoiz, udako sesioak* proiektatuta.

Harrera familia izatearen magiara erakarri nahia

Lasarte-Oriako Udalak, Tolosaldea Sahararekin eta Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldearekin elkartearekin elkarlanean, Oporrak Bakean programaren aldi berria martxan jarri du. Kanpainaren leloa honako hau da: 'Esperantzari leiho bat'

Txinbarri

2025eko udan haur sahararrak etxean hartuko dituzten harrera familiak bilatzeko prozesua abiatu du Oporrak Bakean ekimenak. Hala jakinarazi dute, berriki, Lasarte-Oriako Udalak, Oporrak Bakean egitasmo ordezkarri eta herriko harrera familia bateko kideak.

Alkateak hartu du hitza ageraldiari hasiera emateko, eta, azpimarratu udalerrriak aipatu programarekin duen konpromisoa berresten duela. Honako adierazpenok egin ditu gero: "Urte asko daramatzagu Lasarte-Oria herri solidario eta konprometitua garelako erakusten. Oporrak Bakean ez die bakarrik ongizatezko uda bat eskaintzen haurrei, baizik eta haien herriari gure babes eta elkartasuna adierazteko aukera ere ematen digu. Saharar herriak baldintza oso gogorretan jarraitzen du borrokan, eta horregatik, gure elkartasuna ezinbestekoa da".

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek, berriki, harrera familiak balioan jarri ditu: "Haur bat udan hartzea eskuzabaltasun keinu ikaragarria da. Aurreko edizioetan parte hartu duten familiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta familia berriei programan parte hartzera animatu. Hau ez da soilik haur sahararentzat aberasgarria, baita harrera familientzat eta gure komunitate osoarentzat ere".

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ordezkarri Elixabete Eizagirrek hartu du hitza gero, eta harrera familien beharra nabarmendu du. Azaldu du Mendebaldeko Saharako haurrentzat "ezinbestekoa" dela udako baldintza gogorretatik (60 gradura ere irits daiteke tenperatura urte sasoi horretan) aldentzeaz gain, beraien elikadura eta osasuna hobetzeko aukera ematen diela, besteak beste. Ez hori bakarrik,

ordea, beste errealitate, kultura eta ohitura batzuk ezagutzeko parada ere. Hori azaltzearekin batera, azpimarratu du haurrak hartzen dituzten familiek gazte txo horiengandik guztiengandik jasotzen dutena ere ederra dela: "Bi aldeko hartu-eman bat da. Horrek, gainera, betirako lotura bat sortzen du haur sahararrekin eta bere familiarekin, eta hori magikoa da".

Irati Zatarainen txanda izan da gero. Harrera familia da, eta aurten, hirugarren urtez hartuko du haur sahararra etxean. Urte hauetan bizi izan dutenaz mintzatu da, eta kontatu du, besteak beste, oso esperientzia ona izaten ari dela: "Oso erraza izan da lehen egunetik". Elkarrekin uneoro eskaintzen duen babes eta laguntza ere azpimarratu ditu, eta herriko familiak animatu harrera familia izatera. Azken horrek aipatu du ere Lasarte-Oriara etorriko diren haur sahararrek aukera izango dutela uztailean zehar txokoetan parte hartzeko, baita igeriketa ikastaroan ere. Hori, udalaren laguntzari esker posible dela ere jakinarazi du, eta eskerrak eman dizkie udal ordezkariei.

Izena emateko epea

Harrera familia izan nahi dutenek, martxoaren 15era arteko epea dute izena emateko. Zalantza dutenentzat, gainera, bilera informatibo bat aurrera eramango dutela ere iragarri dute. Mercero aretoan izango da hori, hilaren 25ean, 17:30ean. Eizagirrek ohartarazi du inolako konpromisorik gabe joan daitekeela gaiarekiko interesa duen oro. Ekimenaren gaineko informazioa emateaz gain, bertaratzen direnen zalantza eta bestelakoak argitzeke ere baliagarria izango dela.

Informazio gehiago nahi duenak, elkartearekin harremanetan jar daiteke, eta horretarako honako bide hauek erabil ditzake:

www.oporrabakean.eus; 696 014 786 telefono zenbakia, edo oporrabakean@gmail.com helbide elektronikoa.



Herritarrek harrera familia izatera animatu dituzte egitasmoaren aurkezleek. TXINTXARRI

ESPERANTZARI LEIHO BAT

Hartu etxean ume saharar bat udan



LASARTE-ORIAKO HARRERA FAMILIENTZAT DOAKO ZERBITZUAK:

- Udako Txokoak (jangela aukeran).
- Itzultzaile / begiralea.
- Igeriketa ikastaroa kiroldegian.
- Ekintza bereziak beste herrietako haur sahararrekin.



oporrabakean.eus

LASARTE-ORIA
696 01 47 86

Otsailaren 25ean
Lasarte-Oriako
MERCERO ARETOAN 17:30ean
INFORMAZIO BILERA



Euskadiko Fronte Poltsarioaren Ordezkaritza
Delegación del Frente Poltsario en euskadi





Izakien eta gizakien arteko hitzarmena errespetatu ez duen Kaxkamalo sutan erreko dute, Okendo plazan. TXINTXARRI

Ituna berritzeko garaia heldu da

Basoko izaki bizidunak mozorrotuta etorriko dira Lasarte-Oriara hilaren 28an, arratsaldean, mozorrotuta, gizakioi urtebetez kalte ez egiteagatik dagokien ordaina jasotzera. Bi trama bateratuta, Euskal Inauterien zentzua eta esanahia nabarmenduko dituzte antolatzaileek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Inauteriei buruz pasioz hitz egiten du David Egizabalek (Lasarte-Oria, 1974). Urteak daramatza ospakizun horren zentzua eta esanahia nabarmentzeko lanetan, eragile batzuekin elkarlanean: Ttakun Kultur Elkartea, Plaza Dantza, herriko ikastetxeak... Aurten ere aurrea eramango dute basoko izaki bizidunen eta gizakien arteko ituna berritzeko akordioa irudikatzen festa, udalarekin lankidetzan, hilaren 28an, 16:45etik hasita. Egizabalekin elkartu da TXINTXARRI, jarduera horri buruz gehiago jakiteko.

"Gure xedea da Euskal Inauterietatik gogoa, interesa eta jakin-mina piztea", azpimarratu du herri-tarrak. "Ospakizuna ikustera bertaraten direnek ez dezatela esan 'hara, zer gauza sinpatikoa' eta kitto; 'hau guztia zergatik egi-

ten dute horrela?', galde diezaie-tela euren buruei". Festa bizitzeko unean herri-tarrak kokatuta egon daitezten, bi trama uztartzen dituen ipuin bat (eskuineko zatidurako QR kodea eskaneatuta, osorik irakurri ahalko duzue) eratu du Egizabalek, Juan Luis Eizmendi zenarekin batera: batetik, eguzkia eta ilargiaren arteko eztabaida, eta, bestetik, basoko izaki bizidunen eta gizakien arteko hitzarmena. Bi iturritatik edan dute: Juan Antonio Urbeltz etnomusikologoaren ikerketetatik eta Garaikoetxea-Landaberriko musika irakasle izan zen Ion Lasak

"ZILEGI DA GURE TRAMA MOLDATZEA ETA EGOKITZEA; LANKETA EGITEA DA GARRANTZITSUENA"

idatzitako ipuin batetik. "Juan Luisi eta bioi polita iruditu zitzaigun bi kontakizunak lotzea eta forma hori eman genion. Edonola ere, argi utzi nahi dut garrantzitsuena gaiari buruzko lanketa egitea dela eta gure istorioa ez dela hasi eta buka bere horretan errespetatu behar: Zilegi da bakoitzak gure oinarria moldatzea eta egokitzea; gaiari buruzko lanketa egitea da garrantzitsuena".

Ikastetxeen parte hartzea

Hori egin du, esate baterako, Landaberri ikastetxeak. Egizabalek eta Eizmendik eraturako ipuina hartu eta bertan ikasten ari diren ikasleen (Lehen Hezkuntzako 3. etik 6. mailara) ikuspuntura neurritu du; gainera, hilaren 28ko ekitaldian parte hartuko dute (Sasoeta-Zumaburuko zirkloetako batean ere jorratzen dute eta gonbidatuta daude). Pozarren hartu

du hori herri-tarrak: "Euskal Inauterietan erabiliko duten istorioa ez da berdina izango, baina gutxienezkoa da hori; inportanteena da belaunaldi gazteak janztea eta erakartzea". Garaikoetxean (Haur Hezkuntza eta LH 1-2), bestalde, hiru hamarkada daramatza Euskal Inauteriak beraien modura, Lasak duela 30 urte idatzitakoan ardatzuta: "Betidanik aritu dira eztabaidatzen eguzkia eta ilargia, ea nor ote zen bietatik maitatuena. Lehenengoak, egunaren erdia argitzen du, eta bigarrenak, beste erdia. Txandaka aritzen dira bata bestearen atzetik, elkar ikusi gabe, hitzik trukatu gabe, eta elkarri egunaren pusketa bat lapurtu nahian".

Arestian aipatutako trama hori lotu dute Urbeltzek proposatu duenarekin, basoko izaki bizidunen eta gizakien arteko hitzarmenarekin. "Zailena izan zen biak uztartzerakoan oreka mantentzea, istorio batek bestea zapal ez zezan eta alderantziz", azaldu du Egizabalek. Horren harira, honakoa ohartarazi du: "Ezin dezaket esan Euskal Inauteri tradizional bat egiten ari garenik Lasarte-Oriana, ez delako horrela. Baiezta dezakedana da usadioan oinarritutako festa bat

"OSPAKIZUNAK IRAUN DEZAN, EGUNGO JOERA ETA ZALETASUNEKIN NOLA LOTU ASMATU BEHAR DUGU"

Eguzkia, ilargia eta izadia

Hilaren 28an ospatuko dituzte Lasarte-Oriako Euskal Inauteriak: erromeria, dantzak, mozorroak, sua eta txokolatea ez dira faltako, ezta azalpenak ere. Festa horren zentzua eta esanahia balioan jartzeko, David Egizabalek eta Juan Luis Eizmendik sortutako ipuin batean oinarrituko dira. Bi trama bateratu dituzte, eguzkia eta ilargiaren arteko eztabaidarena eta basoko izaki bizidunen eta gizakien arteko hitzarmenarena.

Kontakizun hori Euskal Inauterien aurretik oso-osorik irakurri eta festaren esanahia barneratzeko, gure atari digitalean argitaratu dugu ipuina. Sakelako telefonoa hartu eta QR kodea eskaneatu besterik ez duzue egin behar.



egiten dugula, elementuetako asko ekarrira". Gauzak horrela, zomorroak dira gaur-gaurkoz protagonista nagusiak. Basoan bizi diren animalia eta landareak irudikatzen dituzte eta urtean behin udalerrira etortzen dira, *gizakituta* edo, bestela esanda, mozorrotuta (besteak beste, Txantxoz), gizakiekin ituna berrestera: ordain baten truke, urtebetez uztak ez suntsitzea eta gaitzak ez eragitea adosten dute. Hitzarmenaren oinarria hori izanagatik, Kaxkamalo izeneko lapur gaiztoak ez du zehaztutakoa betetzen eta sutan erretzera kondentzen dute, ez soilik egin duenagatik zigortzeko, baita zeruraino iristen diren sugarrak sortu eta eguzkia elikatzeko. Hori eginda, gauak gero eta laburragoak bilakatzen dira eta Ama Lurra emankor esnatzen da.

Azaldutako hori hilaren 28an irudikatuko dute, 16:45ean hasiko den ospakizunarekin. Aurreneko zatia Oriarte Landaberriko estalkian egingo dute, eta bigarrena, Okendo plazan. Eskuineko albistean duzue egitaraua.

Funtzio sozialak

"Euskal Inauteriak bezalako ospakizunak biziak dira eta aldatzen doaz. Biziraun dezaten, funtsezkoa da funtzio sozialak betetzea, bestela desagertu egin direlako", nabarmendu du Egizabalek. Norabide horretan, urtero "tekla desberdin bat" ukitzen dute, Inauterien bidez landu nahi dutena hautatu, eta maskarak (gaur-gaurkoz, gaitzen iturri diren zomorroak) sortu. "Milaka izan daitezke: gizartearen antolaketa eta belaunaldiak aldatu egin badira ere, funtsean arazo berberak ditugu".

Ospakizuna antolatzen jarraitzeko gogotsu dago Egizabal. "Arazoak berdinak izanagatik, gure funtzionatzeko modua aldatu egin da. Inauterietako elementuekin eguneroko kontuak lantzen jarraitzekotan, gaur egungo joera eta zaletasunekin bateratzean asmatu behar dugu". Horrekin batera, herritarren argi du kultura ondare diren jarduerak mantentzea "herritar guztion ardura" dela. "Euskal Inauteriak, finean, herria egiteko modu bat dira, eta, horretarako zutabe nagusia kalea da, plaza. Berrartu egin behar ditugu toki horiek".

Duela urte dezente murgildu zen Egizabal unibertso horretan, Urbeltzen liburu bat irakurtzen hasi eta "mundu berri bat" ezagutu zuenean. "Kultura ondasun izugarria dugula jabetu nintzen eta zabaltzen hasi nintzen; ipurdi bizia dut eta horretan jarraitzen dut, polita iruditzen zaidalako".

Sardina ehortzi arteko festa koloretsua

Udalerria "kolorez eta tradizioz" beteko duten egitaraua aurkeztu dute udal ordezkariak, erakundearekin lankidetzan ari diren elkarteetako kideek eta konpartsetako parte hartzaileek, Okendo plazan. Egun handia martxoaren 1a izango da, larunbata, goizetik iluntzera arteko ekimenekin. Euskal Inauteriak ospatuko dituzte bezperan, arratsaldean. Neguko ospakizun jarduera garrantzitsu honen balioa azpimarratu du Agustin Valdivia alkateak: "Guztionezko jaiak izaten jarraitzea nahi dugu, eta horregatik, aurreko urteetako esentzia mantenduko duen eta aldi berean berrikuntzak izango dituen egitaraua prestatu dugu". Udaleko Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok jakinarazi du 28.000 euro bideratu dituztela programa osatzera eta gogoratu du *Disney* dela aurtengo gaia.

EGITARAUA

Hilaren 27tik hasi eta martxoaren 3ra arteko egitaraua oparora prestatu dute. Hauek izango dira aurrera eramango dituzten jarduerak:

Hilak 27, osteguna

- **19:00etan, kultur etxeko auditorioan**, Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertu bufoa. Sarrera, doan.

Hilak 28, ostirala

- **15:30ean, herriko ikastetxeetan**, Inauteri festak.
- **16:45etik 18:30era, Oriarte Landaberri institutuko**



Okendo plazan aurkeztu dute Inauterietako egitaraua. TXINTXARRI

estalkian, Euskal Inauteriak ospatzen hasiko dira: txokolate jana, dantzak, erromeria eta istorioaren aurkezpena egingo dituzte.

- **17:30etik 18:45era, Antonio Mercero alboko karpan**, 9 eta 12 urte arteko gaztetxoentzako mozorro festa egingo dute.
- **18:45etik 19:30era, Okendo plazan**, Euskal Inauterien bigarren zatia egingo dute: txantxoak enparantza horretara helduko dira, erromeria egingo dute eta Kaxkamalo gaiztoa sutan erreko dute.
- **19:45etik 21:15era, Antonio Mercero alboko karpan**, 13 eta 16 urte arteko nerabeentzako mozorro festa egingo dute.

Martxoak 1, larunbata

- **12:00etan, Okendo plazan**, parte hartuko duten bost

konpartsetako (Jalgune, Biyak Bat, Intzak Parranda, Sasoeta Sasoian eta La Tribu) kideak elkartuko dira.

- **12:00etan, Okendotik hasita**, herrian barrena kalejira egingo du Oaintxe in deul txarangak.
- **12:45ean, Okendoko oholtzan**, aurtengo mozorro koloretsuak aurkeztuko dituzte konpartsetako lagunek.
- **14:30ean, Antonio Mercero alboko karpan**, elkarrekin bazkalduko dute konpartsetako kideek.
- **16:00etan, karpan**, bazkalostea girotuko dute Ttakun Kultur Elkartearen aisialdi egitasmoetan parte hartzen duten gaztetxoek, Superbingoa eginda.
- **17:15ean, Okendotik abiatuko da** konpartsen desfilea. Erdigunea zeharkatuko dute dantza egin bitartean eta DJ bat eramango

duen furgoneta ibiltaria ere izango da beraiekin. Hortaz, kalejiraren ibilbidea egiten duten herritarrek aukera izango dute zuzenean musika entzun bitartean gorputzak mugitzeko.

- **Desfilea amaitzean**, Okendon, banakako nahiz taldeko mozorro onenen sariak banatuko dituzte antolatzaileek. Guztira, 340 euro, Aterpea elkarteak bazkide diren dendetan erabiltzeko.
- **20:00etan, Okendotik hasita**, herria girotuko du Oaintxe in deul txarangak.
- **22:00etatik 02:00etara, karpan**, gaztetxoentzako disko festa egingo dute.

Martxoak 2, igandea

- **12:00etatik 13:30era, herrian barrena ibiliko dira** Oaintxe in deul txaranga eta LOZET elkarteak erraldoiak eta buruhandiak.
- **18:00etan, karpan**, DJ Nikoren emanaldia. Bereziki adineko pertsonei zuzenduta dagoela ohartarazi dute antolatzaileek.

Martxoak 3, astelehena

- **11:00etatik 13:00etara, Loidibarren frontoian**, 11 urte arteko umeek puzgarriak izango dituzte.
- **18:30ean, Okendotik hasita**, sardina lurperatu eta Inauteriak amaituko dituzte. Frenetik konpartsetako kideek aurrera eramango dute ekitaldia. Arrain hori ehortzi eta gero, LOZET elkarteak kideek bi zezensuzko aterako dituzte Kale Nagusira.

TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak! Txantxoz janztera animatu nahi zaituztegu. Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

- **Noiz:** Otsailaren 26an, 18:00etan.
- **Non:** Udal Euskaltegiko aretoan.

Eraman beharrekoa:
Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Informazioa eta izen-ematea:

Ttakuneko bulegoan | kultura@ttakun.eus | whatsapp: 695785389



Osa itzazu
lauki zuriak
domino zati hau zuzena izan dadin.

DOMINOAN






Labirintoa

Lesakako inauterietako
Zaku-zahar honek

Maripurtzil izutu nahiko luke, baina ihes egiten dio.
Lagun iezaiozu Zaku-zahar horri harengana iristen,
harrapatzen ez badu barregarri geldituko da eta.

Itzala

Zein da
Zaku-zahar
pertsonaiaren
itzal zuzena?



Begira, begira! Han aurre-aurrean dagoen
pertsonaia tente beso-zabal hori Miel

Otxin da, bide-lapur
moduko bat. Gaizto
samarra izan behar du,
erretzera
baitaramate
txatxoek.
Aurkitu bi txatxo
multzoen artean
dauden aldeak.
Hamaika dira
guztira.





Ziripot

Lantzeko Inauterietako pertsonaia ezagunenetako bat da Ziripot. Hona hemen berau, hamar bider. Ordena itzazu hamarrak handienetik txikienera, handienari 10 zenbakia emanez, eta txikienari 1, hurrenez hurren.

Sudokua



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (O, T, S, A, I eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Mozorro Festa

Gauza haiek guztiak Inauterietako

mozorroen osagarriak izaten dira. Horien artetik hiru bi bider ageri dira, zeintzuk? Bide batez, margotu itzazu denak.



Lantzeko Inauteria



Martin eta Garmendia, ederki pista txapelketan

Txirrindulariek hitzordu garrantzitsua izan dute hilaren 16an, pistako Gipuzkoako txapelketa. Andoaingo Txirrindulari Eskolako kide Xabat Martin eta Luken Garmendia herritarrek kadete mailako podiumera igo dira taldean zein bakarkako lehiatan

Txintxarri

Gipuzkoako pistako txirrindularitza txapelketa jokatu zuten hilaren 16an, Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Belodromoko konponketak direla eta, pista lehiaketako jardunaldi bakarra jokatu dute kirolariek aurten. 50 bat txirrindulari batu ziren belodromoan eta Luken Garmendia eta Xabat Martin herritarrek Andoaingo Txirrindulari eskolarekin parte hartu zuten. Lasarte-Oriako gazteak kadete mailako proba ezberdinetan podiumera igo ziren.

Jardunaldiko lehen proba taldekako abiadura lehia izan zen. Garmendia eta Martin Oinatz Arruti taldekidearekin batera lehen postuan sailkatu ziren



Martin (ezkerrean) eta Garmendia (erdian), taldekideekin. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Iruki-Donostialdea eta Oriako taldeen aurretik.

Bakarkako probetan, aldiz, lehenik keirin lasterketan par-

te hartzeko sailkapen proba gisara danesa jokatu behar izan zuten parte hartzaileek eta Martinek lortu zuen txartela. Horrez gain, finalera iristeko finalaurreko bat ere gaintitu behar izan zuten kirolariek.

Scratch proban ez ziren fin ibili herritarrek, baina ondoren lehiatu ziren puntuazio eta keirin probako finalean Martin herritarra garaile izan zen. Lehenean Irunes taldeko Telmo Aguirre eta Iruki-Donostialdeko Liam Martinez izan zituen lagun podiumean; horiek guztiek eta laugarren zein bosgarren sailkatuek itzuli bat atera zieten gainerako partaideei. Bigarrenean, aldiz, taldekide Oinatz Arruti eta Aguirre izan ziren podiumetako bigarren eta hirugarren mailan.

Errepidea, martxoan

2024-2025 denboraldi hasieran Gipuzkoako txirrindulariek lasterketan segurtasuna bermatzeko eskaera egin zuten. Gora-behera eta negoziazio askoren ostean, hala nola, Federazioko kideek uko egin zioten euren karguei, errepideko denboraldia martxoan hasiko dute gazteek Beasainen.



Manso, sariarekin. A. MANSO

Espainiako txapelketako saria jaso du Mansok

Espainiako automobilismo federazioak 2024 urteko Txapeldunen gala egin zuten hilaren 15ean, Madrilan. Aitor Manso herritarra bertan izan zen III. mailako Mendiko igoen Espainiako txapelketako saria jasotzen; hirugarren sailkatu zen. Lasarte-Oriako gidariak 2024an lehenengoz lehiatu du txapelketa eta lehen hiru postuetan izan da proba gehienetan. Benito Perez asturiarra izan da txapelduna eta Jordi Villardel katalana, bigarren.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Inxaurdi KE Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Euskalduna A. SD Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Texas Lasarteerra CF - Ostadar SKT Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunea.
OJM, JAITSIERA
As. Mundarro FKE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Zarkumendegi, Astigaragan.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Zestoa KB - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Iraeta, Zestoa.
J. I. MAILA, IGOERA
Texas Lasarteerra CF B - Soraluze CF Igandea. 12:50. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, KOPA
Hernani CD C - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 19:30. Zubipe, Hernanin.
J. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Arebaleta KE UDA C - Ostadar SKT C Larunbata. 15:30. Ibarra, Arebaletan.
OKM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Aizkorri Segura FT Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
K. I. MAILA, KOPA
Behobia CD - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Artia, Irunen.

Urki CD B - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 13:00. Unbe, Eibarren.
Arupe Chaminade CDF - Ostadar SKT (maskak) Igandea. 09:00. Felix Garin, Donostian.
K. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Ostadar SKT C - Billabona KE C Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Idiazabal Bai Ref. - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 22:30. Zelaa kirol., Idiazabalen.
III. MAILA
Izarraitz AFT - Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 22:30. Zubiaurre kirol., Azkoitian.
GAZTEEN MAILA
Herrikide - Eguzki Bodegas Ayasa Larunbata. 11:00. Eskolapioak ik., Tolosan.
KADETE MAILA
Antiguoko KE CLC - Eguzki Goxokis Goxua Igandea. 11:45. Pio Barroja kirol., Donostian.
SASKIBALOAIA
II. MAILA
Ostadar SKT - ZAST Oak Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
III. MAILA
Ostadar SKT - Eibar Saskibaloia B Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Saski Axular Izaburu - Ostadar SKT Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Bergara KE Pixel Sist. - Ostadar Beltza

Igandea. 16:00. Labegaraleta kirol., Bergaran.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Ostadar SKT - Dinnteco Araba Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Biko Ase. Oiarso SKT - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Don Bosco, Erreterian.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Geboko Aixerota Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Hernani Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Oarso Urdina - Ostadar SKT Igandea. 15:30. Beraun pil., Erreterian.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT A - Hernani KE 1 Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Aidea Mixelena A Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
EPLE - Intza Ostirala. 17:30 (4. partida). Udaleko pil., Umietan.
UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Intza - Eibar 2 Ostirala. 17:45 (2. partida). Loidibarren pil.
TRINKETEA, NAGUSIEN II. MAILA

EPLE - Intza (Olazabal) Larunbata. 15:30 (2. partida). Ametsa tr., Irunen.
ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Hernani 3 -Intza Ostirala. 19:30 (1. partida). Udaleko pil., Hernanin.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Oiarpe 1 Ostirala. 17:45 (3. partida). Loidibarren pil.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Uribealde - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Plentzia, Bizkaian.
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Hernani CRE Larunbata. 17:30. Kote Olaizola mini., Donostian.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gaztedi RT - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 15:00. Gamarra, Gasteizen.
18 URTEZ AZPIKOA
Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT - Gebro RT Larunbata. 11:45. Atsobakar kirol gunea.
16 URTEZ AZPIKOA
La Unica RT - Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:00. Iruñea, Nafarroan.
14 URTEZ AZPIKOA
Iruña RC - Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. xxx. Iruñea, Nafarroan.
GIMNASTIKA
BENJAMIN TOPAKETA
LOKEko gimnastek benjamin topaketa

izango dute. Larunbata. 17:15. Hernaniko kiroldegian.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Herriko atletak 16, 18 eta 20 urte azpiko Euskadiko txapelketan izango dira lehiatzen. Larunbata eta igandea. Antonio Elorza belo., Donostian.
IGERIKETA
EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo infantil mailako Aimaier eta Ibaso Iparragirre kideek Euskal Herriko Neguko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Irunen.
XAKEA
II. MAILA
Taula A - Gros I Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
Beraun Bera B - Taula B Larunbata. 16:00. Erreterian.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako jardunaldia jokatu da. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.
KIROL EGOKITUA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Gurpil aulkiko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute Ostadar Inklusioa taldeko kideek. Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.

Euskal Ligako taldea, igoerako finalerdietan

Nahiz eta neurketa urduri hasi, Ostadar Boleibola saileko Euskal Ligako taldeak Galdakao BT Elexalde garaitu du I. mailarako igoera fasean. Getxoko Aixerrota izango du aurkari finalerdian hilaren 22an, 18:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian

Txintxarri

Ostadar SKTko Euskal Ligako II. mailako taldeak pauso ederra eman zuen hilaren 15ean, Maialen Chourraut kiroldegian. Galdakao BT Elexalde 3-0 garaitu eta igoera faseko finalerdietan da talde urdin-beltza.

Asier Acuriolaren taldeak liga erregularreko azken neurketa galtzeak sortu zion zapore garratza kentzeko baliatu zuen igoerako final laurdena eta finalaurrekora begira konfiantza eman zion taldeari.

Partida urduri hasi zuten etxeko jokalariek eta lehen minutuetan erasoan zein defentsan baloien kontrola eta zehaztasun falta ekarri zuen. Ederki borrokatuta, 25-22 irabazi zuten lehen jokoa eta horrek konfiantza eman zion taldeari.

Lehen zatiko akatsak zuzendu eta erasoan eraginkortasuna irabazi zuen etxeko taldeak. Era horretara, 25-10 eta 25-11 gainditu zuen Galdakao BT



Ostadarren erasoetako bat. TXINTXARRI

Elexalde eta igoera eskuratzeko bidean aurrera egin dute urdin-beltzek.

Getxo, finalerdian

Beste talde bizkaitar bat izango du aurrez aurre Acuriolak zu-

zentzen duen taldeak finalerako bidean, Getxoko Aixerrota.

Getxoko Aixerrotak A multzoko bigarren sailkatu modura amaitu zuen lehen fasea. Beraz, neurketa berdinduagoa espero du Ostadar SKTko prestatzaileak: "Getxo talde orekatua eta indartsua da, bai defentsan bai erasoan ere".

Ostadar SKTk bere onena emanez gero, bizkaitarrak gainditu eta finalean egoteko aukerak dituztela uste du Acuriolak. Bere hitzetan, "gure maila erakutsiz gero aukera handiak ditugu finalera iritsi eta I. mailarako igoera zuzena eskuratzeko. Baina gure aurpegi onena aurkeztu behar dugu neurketan".

Lasarte-Oriako boleibol zale-tuek taldeari animoak eman eta igoerara bultzatzeko aukera izango dute berriro ere; hitzordua Maialen Chourraut kiroldegian jokatu du Euskal Ligako taldeak, hilaren 22an, 18:00etan.



OSTADAR IPAR MARTXA

Haurren minbizia ikustarazten

Aspangoki elkarteak haur minbizidunen errealitatea kaleetara ateratzen du urtero ipar martxa ibilaldiaren bitartez. Aurtengoa hilaren 16an egin zuten, Donostian, eta 800 bat pertsona bildu ziren Sagues eta Haizearen orraziaren arteko ibilbidea egiteko. Horien artean ez zen falta Ostadar SKTko Ipar Martxa taldea. Urteroko hitzorduari eusten dio herriko kirol taldeak eta bidean Porrotx ere lagun izan zuen taldeak.

Lehen postua, poltsikoan

Areto futboleko kadete mailako liga amaitzen da. Bi jardunaldi faltan, Eguzki Goxokis Goxua taldeak lehen postua eskuratu du matematikoki. Maialen Chourraut kiroldegian nagusitasunez garaitu zuen Mondrate, 6-0. Gorka Redondok zuzentzen duen taldeak ez du neurketarik galdu aurtengo denboraldian eta horri esker, sailkapen buru da. Hurrengo jardunaldian, hilaren 23an, neurketa gogorra izango du bigarren sailkatu



TXINTXARRI

den Antiguokoren aurka eta azken jardunaldian, Laskorain B izango du aurrez aurre.

Donostia Arraun Lagunak, Oriako jaitsieran garaile

Eneko Mendizabal (Ur Kirolak) herritarrek Distantzia Luzeko Espainiako txapelketan zilarrezko domina eskuratu du

Txintxarri

Arraunlariak denboraldiaurreari hasiera eman diote hainbat estropadetan. Hilaren 15ean, esatea baterako, XXXI Oriaren Traineru Jaitsiera lehiatu zen Aginaga eta Orio artean. Maila ezberdinetako lehia izan zen Oria ibaian eta emakumezkoen proban bi herritarrek parte hartu zuten Donostia Arraun Lagunak taldean, Aiora Belartietak Galardi eta Nahia Goenaga Sarobe. Donostiako ordezkariak bi ontzi aurkeztu zituen txapelketara eta bakoitzean herritar

bana izan zen borrokan, Belartietak A ontzian eta Goenaga B ontzian.

Hamahiru traineruk parte hartu zuten erlojupeko proban eta Arraun Lagunak Ak egin zituen 4.000 metroak azkarren, 13,45.49. Orio Orialki eta TAK tolosa izan ziren podiuma osatu zutenak. Donostiako taldeko bigarren ontziak, aldiz, 15.17,11 behar izan zituen bidea egiteko.

Mendizabal ere podiumean

Aurreko zenbakian berri eman genuen bezala, distantzia luzeko



Ezkerrean, Donostia Arraun Lagunak-eko arraunlariak. Eskuinean, Eneko Mendizabal (eskuinean), kideekin. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK/EZPALA

arraunlariak Castrelo de Miñon (Ourense) hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 8an eta 9an. Lehen egunean Espainiako distantzia luzeko txapelketa lehiatu zen eta egun bat geroago, Erkidegoen arteko lehian. Horretan Nahia

Goenaga Saobe herritarren jardunaren berri eman genuen, baina ez zen herritar bakarra izan txapelketan. Paralinpikoen mailan, Ur kirolak taldeko Eneko Mendizabal Urdapilletak ere parte hartu zuen lehen egunean

1xPR2 mailan. Herritarrek bigarren postua eskuratu zuen, 5.500 metroko ibilbidea 28.50,35ean eginda. Lehen postua bere taldekide Beñat Odriozola Aranburu hernaniarrak eskuratu zuen.



Igerilari gazteak, ederki euren hitzorduetan

Buruntzaldea IKTKo alebin eta benjamin mailako gazteek Maialen Chourraut kiroldegian izan dute euren mailako hitzordua. Alebinak fin ibili dira 400 m. libre proban eta markak ontzeaz gain, udako denboraldirako Gipuzkoako txapelketarako gutxieneko bat ere eskuratu dute

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteenek Maialen Chourraut kiroldegian izan zituzten hitzorduak hilaren 15ean. Uretara jauzi egiten lehenak benjaminak izan ziren eta horien ostean, alebin mailako ligako laugarren jardunaldia jokatu zen.

Lehen saioan igeriketa taldeko hamalau hurrek parte hartu zuten eta ikasteko zailak diren bi estiloetara eutsi zioten, bular zein tximeleta estiloa.

Lehenik, hanken seriea egin zuten eta taularen laguntzaz, tximeleta eran egin zuten 2016 eta 2014 urte arteko igerilarietako ostean, bular estiloko 50 m. edo 100 m. probetara egin zieten aurre eta 4x50 m. tximeleta erreleboa ere jokatu zuen taldeko Nora Becerrak Igartza eta Ordizia taldeko kideekin batera.

Akats batzuk izan zirela jakitun, igerilari guztiak bikain aritu zirela nabarmendu dute taldeko prestatzaileek eta gogo-



Alebin eta benjaminak proba ezberdinetan lehiatu ziren igerilekuan. TXINTXARRI

ratu dute maila horretan arautegiaren ezagutza eta estiloen irakaskuntza dutela kontuan.

Gainera, bi modu horiek barneratzeko lanean jarraituko dutela jakitera eman dute; hurrengo jardunaldian ere bi estilo horietatik izango dira oinarri. Bakarkako proban tximeleta eran lehiatu beharko dira gaztetxoak eta erreleboan, bular estiloa.

Lehen postuetan

Jarraian, alebin mailako igerilarien txanda izan zen eta horretan Buruntzaldea IKTKo zazpi ordezkari izan ziren borrokan.

Igerilarietako jardunaldiari hasiera emateko 25 m. bular estiloko hanken lasterketa izan zuten. Ondoren, 400 m. libre eta bizkar erako 100 metroko edo tximeleta estiloko 50 metroko probak izan zituzten aukeran.

Alebin liga

- 400 m. libre:
 - 2013 urtea:
 - Kerman Miguel - 1º
 - 2012 urtea:
 - Aiala Erro - 1º
 - Izaro Bautista - 2º
 - Aitor Ormazabal - 2º

Buruntzaldea IKTKo kirolarietako distantzia ertaineko proban jarri zuten arreta eta askorentzat lehen aldian zen arren, marka politak eskuratu zituzten eta batzuk euren mailako lehen postuetan izan ziren. Ikus goiko koadroa.

Horrez gain, Aitor Ormazabal egindako markari esker, Gipuzkoako Udako Txapelketarako gutxieneko eskuratu zuen.

Gainerako probetara dagokienez, igerilariak txukun aritu ziren eta igerilarien gehiengoak markak hobetzea lortu zuten.

Eta lanean jarraituko dute Buruntzaldea IKTKo ordezkari gazteek. Hurrengo hitzordua martxoaren 15ean izango da; Ligako bosgarren jardunaldia Tolosako Usabal kiroldegian lehiatuko da.

Boluntarioei eskertza

Igeriketa taldeko ordezkarietako eskerrak eman dizkiete euren ezinbesteko laguntza eman zieten boluntarioei: "Zuek gabe ezingo genukeen jardunaldia aurrera eramane".



LOKE JUDO

Infantilak, bikain lehian

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) judoek infantil mailako judoek Gipuzkoako txapelketako bigarren fasea lehiatu zuten hilaren 15ean, Urnietan. Taldeko kideak ederki borrokatu ziren eta euren mailako lehen postuetan sailkatu ziren. Ikus koadroa.

- Sofia Pozo - 2º
- Ariane Luis - 3º
- Ainitze Tabuzi - 3º
- Ariana Mendoza - 2º
- Cristel Vallejo - 3º
- Marco Iriso - 1º
- Alejandro Arevalillo - 3º
- Alba Padrones - 3º
- Ivan Barrantes - 5º

LOKEko gimnastek, denetariko emaitzak eskolartekoan

Infantil eta alebin mailako gimnastek lehen fasea lehiatu dute. Guztiak ederki aritu dira lanean

Txintxarri

Eskolarteko mailako gimnastek Azpeitian bildu ziren hilaren 15ean eta 16an Gipuzkoako txapelketako lehen fasea lehiatzeko. Lasarte-Oria kirol elkarte (LOKE) ordezkariak bakarka zein taldeka parte hartu zuten infantil zein alebin mailatan eta batzuk maila berriari aurre egiten ziotenez, denetariko emaitzak izan ziren. Ikusi ondoko taula.

Lehen jardunaldian alebinen txanda izan zen. Taldeek esku hutsik eta pilotarekin egin zuten lan eta bakarkakoek, aldiz, tres-

narik gabeko dantzak egin zituzten. Aipatzekoa da bakarka Ariane Rodriguezek egindako lana. LOKEko prestatzaileek azaldu modura, B mailatik igo berri da Rodriguez eta aurkari onak izan arren, "ez zen kikildu eta bere indar eta espresio guztia erakutsi zuen bere dantzan". Horrek lehen postua eman zion.

Hurrengo egunean, berriz, infantilak atera ziren tapizera eta tresna ezberdinekin lehiatu ziren. Taldeek uztaiarekin prestatutako lanak aurkeztu zituzten eta bakarkakoek, aldiz, sokarekin.



LOKEko taldeetako bat eta bakarkako lehiakideak. LOKE GIMNASIA

Talde guztiak ederki lehiatu ziren, nahiz eta aurreko egunean Plak kide bat galdu lesioarengatik. Lehiaketan gainerako lau kideek aurkeztu zuten koreografia eta Paula Martinez entrenatzailearen eta gazteen lanari esker, ederki moldatu ziren.

Bakarkakoei dagokienez, Aiala Jimenez ederki jardun zen A mailan eta Oihane Portuburuk urduritasunarengatik hainbat akatsak

egin eta horiek puntuazioan kalte-zutela aipatu dute entrenatzaileek.

Benjaminak, tapizera

Amateur eta eskolarteko mailako gimnastek gain, taldeko txikiek ere euren dohainak erakusteko aukera izango dute benjamin topaketan. Hilaren 22an, Hernaniko kiroldegian, Landaberriren izenean hiru talde izango dira euren lanak erakusten.

Eskolarteko txapelketa emaitzak

- Bakarkakoak/bikoteak
 - Infantil A maila
 - Oihane Portuburu - 7º
 - Aiala Jimenez - 3º
 - Alebin A
 - Ariane Rodriguez - 1º
 - Taldeak
 - Infantil B
 - LOKE P1 - 6º
 - LOKE P2 - 2º
 - Infantil C - LOKE - 5º
 - Alebin B - Landaberri - 11º
 - Alebin C
 - Landaberri P1 - 35º
 - Landaberri G - 19º

Benjamin topaketa

- Landaberri 1
- Landaberri 2
- Landaberri 3

Lasarte-Oria-Urnieta bidegorria aurkeztu dute

Lasarte-Oria eta Urnieta batuko dituen bidegorriaren lan proiektua azaldu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak. Lasarte-Oriako zein Urnietako alkateak pozarren agertu dira azpiegitura berriarekin. Lanen aurrekontua 1,5 milioikoa da

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak Lasarte-Oria eta Urnieta lotuko dituen bidegorria eraikiko du. Lasarte-Oriako zein Urnietako alkateak, Agustin Valdivia eta Jorge Segurado, eta Jasangarritasun diputatu Jose Ignacio Asensiok lekua bisitatu dute berriki eta Monica Pedreira Trantsizio Ekologikoko zuzendariak lanaren zehaztapen teknikoak azaldu ditu.

Oinezkoen zein txirringarrien irisgarritasuna hobetuko duen bidegorri berriak Plazaolako bidea jarraituko du. Lasarte-Oriako Azkorte bidea Urnietako bide sarearekin lotuko duen 1,2 kilometroko eremua da eta txanpinoiak hazteko erabiltzen zen tuneletik joango da.

Bidegorria eraikitzeke aurrekontua 1,5 milioi eurokoa da, eta obrak 2025aren amaieran eta 2026aren hasieran egingo dira. Lanak hiru sektoretan banatuko dira –Lasarte-Oriako



Udal eta Aldundiko ordezkariak, lanak egingo diren eremuan. TXINTXARRI

Azkorte bidea, tunela eta Urnietako eremua– eta zortzi hilabeteen amaitzea aurreikusitako Aldundiko teknikariak. Zehazki, lurra egokitzeko, zolatzeke, drainatze sistemak instalatzeko, tunela sendotzeko eta seinalezatzeko lanak egingo dira.

Foru Aldundiak garraibide ez kutsatzaileak eta irisgarriak sus-

tatzeko sustatutako mugikortasun jasangarriaren planaren barruan kokatu du obra eta azpiegitura ingurumen integratioko eta eraginkortasuneko irizpideen arabera diseinatu dute. Gainera, espazio segurua izan dadin, tuneleko argiztapena zainduko dute. Pedreira: "Gure sailerako garrantzitsua da genero ikuspegitik

azpiegitura itxiak gune seguruak izatea".

Lotura garrantzitsua

Ordezkari politikoak pozarren agertu ziren obra hau aurrera eramanez. Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak horrela azaldu zuen agerraldian: "Urte batzuk daramatzagu lanean lotura hau lortzeko, Lasarte-Oriarentzat ez ezik, Urnieta eta Buruntzaldearentzat ere funtsezkoa dena. Azpiegitura horrek aukera ematen digu Lekunberritik Donostiatik harantzago joateko, mugikortasun jasangarriaren alde eginez eta herritarrei garraio eta aisialdirako aukera berriak eskainiz. Oso pozik gaude egun hau iritsi delako".

Urnietako alkate Jorge Seguradok ere proiektuaren garrantzia azpimarratu zuen: "Herriko zein Buruntzaldeko mugikortasun jasangarria, aisialdia eta turismoa sustatzeko proiektu estrategikoa da hau".

Bi alkateek eskerrak eman zizkieten Aldundiari azpiegitura horren aldeko apustua egiteagatik.

Jasangarritasuneko diputatu Jose Ignacio Asensiok azpiegitura horrek Gipuzkoan mugikortasun jasangarriago baterantz aurrera egiteko duen garrantzia azpimarratu zuen: "Bidegorri hori eraikitzeak, Lasarte-Oria eta Urnieta arteko lotura hobetzeaz gain, bizikletaren eta oinezkoen garraioaren erabilera sustatuko du, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta emisio

kutsatzaileak murrizten lagunduz".

Diputatuak proiektuaren paisaia- eta ingurumen-integratioa ere nabarmendu zuen, bai eta Lasarte-Oriako eta Urnietako udalen arteko lankidetzaren instituzionala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lan egin baitute ekimen hori gauzatzeko. Horren harira, "kolaboratzen dugunean, jendearentzat garrantzitsuak diren proiektuak sortzen dira," adierazi du Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak.

Herriko sarea

Lasarte-Oriako bidegorri sareri dagokionez, aurtengo Hipodromo etorbideko bidegorria moldatuko dela gogoratu du alkateak: "Errepideruntz aterako dugu. Aztertu behar dugu nola. Espaloi estua da kale horretakoa eta kotxeen aparkalekuak ditu ondoan".

Bestalde, egungo herriko sarea eta Plazaolako bidea batzeko proiektuaren gainean ere mintzo da: "Bere garaian institutuko biribilgunetik Euskotrenekora Sasoetan barrena egiteko proiektua zegoen, baina zaila da bertatik egin ahal izatea. Proiektu alternatiboak aztertu behar ditugu. Egungo herri barruan arautua dagoen 30 kilometro/orduko abiadura murrizketak lagundu dezake bidegorria egin ezin daitekeen lekutan errepidea erabiltzea. Azterketa sakona behar du, auzoko trafikoa arazoak ere kontuan izan behar ditugu. Eta hori ez da aurtengo kontua izango".

Hilaren 22an lehiatuko da Gurrpil aulkiko Euskadiko txapelketa

Michelin kirol gunean izango da hitzordua eta Ostadar Inklusioa taldeko bederatzi kidek parte hartuko dute

Txintxarri

Ostadar Inklusioa saileko kideek hitzordua garrantzitsua izango dute bihar, hilak 22, 16:30ean, Michelin kirol guneko areto futbol pistan. Taldeko bederatzi kidek gurrpil aulkiko Euskadiko Eslalom Txapelketari aurre egingo diote.

Ostadar SKTko kideekin batera Keman taldeko bost ordezkari ere izango dira lehiatzen, Kirol Egokituen Euskadiko Federazioak Ostadar Inklusioarekin batera antolatutako proban. Beraz, guz-

tira hamalau kirolari elkartuko dira kirol gunean lau maila ezberdinetan lehiatzeko: WS1A – motorrezko aulkia erabiltzen dute, WS2M – oinekin bultzatzen dute aulkia, WS4F eta WS5F.

Proba ezberdinak aurrera eramango dituzte lehiakideek. Erlojupeko proban zirkuitu finko bat eta aldagarria ahal bezain azkarren gainditu beharko dute gazteek. Banakako eliminazioa ere izango da, horretan buruz buruko lehiak ikusi ahalko dira; parte hartzaileek ibilbidea aur-



Azaroan egin zuten eslalom jardunaldiko irudi bat. TXINTXARRI

karia baino azkarrago egin behar dute. Eta oraindik zehaztu gabe dagoen arren, taldeko eliminazioa ere lehiatu daitekeela arrreratu dute Ostadar SKTko arduradunek.

Ez da lehen aldian maila horretako txapelketa bat Lasarte-Orian

egin dena. Iazko martxoan lehiatu zuten Euskadiko txapelketa Michelin kirol gunean eta azaroan, aldiz, Ostadar SKT eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak eslalom jardunaldia antolatu zuten. Giro ederra izan zen lehiaketa osoan zehar.

Intzako pilotari gazteak, bikain binakakoan

Errendimendu mailako Intzako pilotariak binakako txapelketan ari dira. Alebin I. mailako bikoia Gipuzkoako txapelaren bila ari dira; gainerakoek, aldiz, Ekialdeko txapelketa dute jokoan. Azken jardunaldian guztiek garapena erdietsi zuten.

Etxean, infantilen I. mailako bikoia ederki borrokatu zen Zazpi Iturri 2 18-14 gaintzeko. Kategoria bereko II. mailako bikoia 18-5 gaintu zuen Arkirun 2 eta alebin I. mailan ere Intza nagusi izan zen; 16-2 garaitu zuen Beloki. Idiazabalen, Aizkorpe 1 eta Intzaren arteko neurketa berdindua izan arren, lasarteorriarrak 13-16 gailendu ziren.

ZORION AGURRAK



Jon Pello
Aurten ezin moztarrotutako irudirik jarri, baina jokoan hogeita hamalau dizkiagu! Hamaiketakoak earra zego! Zorionak Ttakuneko lanekideen partetik!



Yogurinha
Zorionak rubia! Zu bai kantzetako izar eta artista; Sturdust anderea zure ondoan... ezer ez! zu bai harribibi... muxu handi bat Richarsi.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	KNIESE
LARUNBATA, 22	KNIESE
IGANDEA, 23	KNIESE
ASTELEHENA, 24	KNIESE
ASTEARTEA, 25	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 26	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 27	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behe, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUNA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Eskutitzak argitaratzeko

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua idaltzeko: bulego-ara etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea.

Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

1	6				5	4	9	
5	2		9			6	8	
		9	6	1				
			8		1	2		9
			7		9			4
9		6		4				1
2	3				7			5 6
7	8		5	9				
6	9	5				7	4	

Sudoku10.net

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Trastelekua saltzen dut, 20 m2., sotoa da, Sasoetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosi nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzearako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik 16:00etara. Dokumentazio guztia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait

behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostan etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldu-

lekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-eskidura eta marxkoko estalkiak. Dazkadan serieko gauza guztiak motorrekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.l saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola
Iraola, Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola eta
Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Aurkezpen bilera

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak ondu duen Herri Ekimen Legegilea babesteko atxikimenduak biltzen ari da herritar talde bat. Zentzu horretan, egitasmoa zertan den aurkeztuko dute eta sinadurak bilduko dituzte. **Biyak Bat egoitza, 18:00etan.**

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarte-Oriako Ernai taldeak Independentziara eguna ospatuko du, egitarau honekin:

18:00etan, hitzaldia eta erakusketa, Xirimiri elkarteak. Ondoren, karropoteoa, herritik.

21:30etik aurrera, afaria. Bukatutakoan, bingo musikatua. **Herrian barrena, 18:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko hirugarren proiektzioa aurrera eramango dute: Oskar Alegriak zuzendutako *Zinzindurrunkarratz* ikus-entzunezkoa emango dute. Sarrerek 6 euro balio dute eta antolatzaileek gogorazari dute zuzendariarekin solasaldia egingo dutela filma amaitzean. **Kultur etxea, 20:00etan.**

LASARTE-ORIA Saioa

Earra! eskolako kideek bertso afari bat aurrera eramango dute. Araitz Ramos, Kattalin Lizarraga, Maddi Lasa eta Leire Ormazabal ariko dira bertsoan; Luken Garmendiak jarriko dizkie gaiak. Koplaka hasi aurretik, bapoz afalduko dute bertarututakoak. **Ttakunenea, 21:30ean.**

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Sinadura bilketa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak ondu duen Herri Ekimen Legegilea babesteko atxikimenduak biltzen ari den herritar taldeak ekimenaren gaineko informazioa emateko eta herritarren sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditu. Sinatzaileek 18 urte edo gehiago izan behar dituzte eta



LASARTE-ORIA Elkartasuna

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak hilaren 25eko afari solidarioak prestatzeko elikagaiak (arroza, dilistak, olioak, esnea eta txokolate hautsa) bilduko ditu, beste gauza batzuen artean. **Bihar, hilak 22, Okendo plazan, 11:00etatik 13:00etara.**

dokumentua izenpetzeko uanean nortasun agiria aurkeztu. **Okendo plaza, Elizatze eta Ola kalea, 10:00etatik 14:00etara.**

LASARTE-ORIA Elkartasuna

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak hilaren 25eko afari solidarioak prestatzeko elikagaiak bilduko ditu eta baita negurako jantziak (lo zakuak, mantak, eskularruak eta txanoak) ere. Horrez gain, jakinarazi dute dirua ere onartzen dutela, ekimenaren logistika gastuak ordaintzeko erabiliko dute. **Okendo plaza, 11:00etatik 13:00etara.**

LASARTE-ORIA Saioa

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak hamargarren aldiz aurrera eramango du bertso saio literarioa, bazkari eta guzti. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio ariko dira bertsoan; gaiak Unai Iturriagak jarriko dizkie. Sarrerek agortuta daudela jakinarazi dute antolatzaileek. **Xirimiri elkarteak, 14:00etan.**

LASARTE-ORIA Antzerkia

La Dramatica Errante konpainiak *Ni funeral, ni flores, ni cenizas, ni tartán* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**

zenbakira WhatsApp mezu bat bidali edo manuel.decabo@cruzroja.es helbide elektronikora idatzi behar dute. **Gurutze Gorriaren egoitza (Adarra kalea, 1), 10:30etik aurrera.**

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Tailerra

Euskal Inauterietarako txantxo jantziak egiten ikasteko saioa aurrera eramango dute Ione Artola jostunarekin. Izena eman nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 zenbakira deitu behar dute. **Osasun zentroko bigarren solairuko erabilera anitzeko gela, 18:00etan.**

LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobilean Elkarrekin hileroko mahai ingurua aurrera eramango du; oraingo honetan, bertarutzen direnek heriotza izango dute hizpide eta gogoetagai. Antropologian doktore Iñaki Olaiola eta Tanatologian aditu Nere Erkiaga gonbidatuko dituzte. Saio ireki eta doakoa dela gogorazari dute antolatzaileek. **Oriarte Landaberri, 19:00etan.**

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema

Finnick, un monstruo en cada casa filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 17:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

Cónclave filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 19:30ean.**

ASTELEHENA 24

LASARTE-ORIA Zinema

XVII. Itsaspeko Zinema Zikloko hirugarren eta azken emanaldia egingo dute, film luze nahiz labor batzuk proiektatuta. Sarrera doakoa da. **Kultur etxea, 19:00etan.**

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Egitasmoa

Gurutze Gorriak *Enrédete* egitasmoaren bigarren saioa aurrera eramango du, elkarrekin harremandu eta ongi sentitu nahi duten adineko pertsonekin. Izena eman nahi dutenek 943-10 30 22 zenbakira deitu, 647 37 15 26

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Erakusketa

XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruko argazki erakusketa ikusteko azken eguna. **Kultur etxeko 1. solairua, 17:00etatik 20:00etara.**

LASARTE-ORIA Inauteriak

Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa emango dute. **Kultur etxea, 19:00etan.**

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Mendebaldeko Sahararen aldeko elkarretaratzea aurrera eramango dute, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zutela 49 urte beteko diren egun berean. **Okendo plaza, 19:30ean.**

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Inauteriak

Euskal Inauteriak ospatzen hasiko dira: txokolate jana, dantzak, erromeria eta istorioaren aurkezpena egingo dituzte parte hartzaileek. **Oriarte Landaberri institutuko estalkia, 16:45etik 18:30era arte.**

LASARTE-ORIA Inauteriak

Mozorro festa egingo dute 9 eta 12 urteko haurrentzat. **Antonio Mercero alboko karpa, 17:30etik 18:45era.**

LASARTE-ORIA Inauteriak

Euskal Inauteriak ospatzen jarraituko dute. **Okendo plaza, 18:45etik 19:30era.**

LASARTE-ORIA Inauteriak

Mozorro festa egingo dute 13 eta 16 urte arteko nerabeentzat. **Antonio Mercero alboko karpa, 19:15etik 21:15era.**

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko azken emanaldia egingo du Okendo Zinema Taldeak: Larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea eta Ainhoa Andrakak zuzendutako *Itoiz, udako sesioak* filma emango dute. Bertarutzen direnek aukera izango dute zuzendariarekin hitz egiteko, proiektzioa bukatzerakoan. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**

MARTXOAK 1

LASARTE-ORIA Inauteriak

Inauterietako egun handia aurrera eramango dute: **12:00etan**, parte hartuko duten konpartsak elkartzeko dira, Okendon. **12:45ean**, aurtenko mozorro koloretsuak aurkeztuko dituzte konpartsek, Okendoko oholztan. **14:30ean**, elkarrekin bazkalduko dute konpartsetako kideek, Antonio Mercero alboko karpan. **16:00etatik aurrera** bazkalostea girotuko dute Ttakun KEko aisialdi programetako gazteek, Superbingoarekin. **17:15ean**, konpartsak desfileen abiatuko dira Okendotik. Eurekin batera joango da DJ bat eramango duen furgoneta ibiltaria. Hortaz, herritarrek aukera izango dute bidea egin bitartean gorputzak gogotik mugitzeko. **Desfilea amaitzean**, norbanako nahiz taldeko mozorro onenen sariak emango dituzte antolatzaileek. Orotara, 340 euro, Aterpea elkarteak bazkide diren establezimenduetan erabiltzeko. **20:00etan**, Okendotik hasita, kaleak girotuko ditu Oaintxe in deul txarangak. **22:00etatik 02:00etara**, gaztetxoentzako disko festa egingo dute Antonio Mercero alboko karpan. **Herri osoan barrena, goizetik iluntzera arte.**



EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 28 (ostirala) · LASARTE-ORIA

ORIANTE LANDABERRI PATIOAN

16:45 | Txokolatada

17:30 | Aurkezpena + Erromeria

18:30 | Txantxoekin kalejira Oriartetik Okendora

OKENDO PLAZAN

18:45 | Txantxoekin dantza

19:15 | Kaxkamalo erre + Agurra



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Lasarte-Oria

ENTITATEEN IZEN-EMATEA MARTXAN!



Eman izena entitate bazarra
entitateak.euskaraldia.eus/parte-hartu/



Norbanakoen izen-ematea martxoan hasiko da!

